

berria

Asteazkena , 2005ko uztailak 6 , 00:04:00an berritua

Gau

Azken ordukoak

Berriak

Harian

Iritzia

Euskal Herria

Ekonomia

Mundua

Gaiak

Kirola

Kultura

Azkena

Agenda

Agenda

Eguraldia

Zozketak

Horoskopoa

Telebista

Farmaziak

Telefonoak

Bereziak

Webguneak

Gure gaiak

Pareak bai

Elkarrizketak

English Edition

Bisitak

Hemeroteka

Zerbitzuak

Harpidetza

Publizitatea

Mezuak

Euskal Herria

CARLOS RUIZ X HEZKUNTZA PREMIA BEREZIETAKO AHOLKULARIA

«Autismoa tratatzeko ez da era bakar bat»

Autismoak zalantza anitz sortzen ditu eskolatzeko prozesuan, integrazioa errazteko estrategiak aztertzea proposatu dute UEUn

NORA ARBELBIDE - MIARRITZE

Zarauzko (Gipuzkoa) Berritzegunean ari da Carlos Ruiz, inguruko hezitzaileen aholkulari. Aste honetan UEUko Pedagogia saileko irakaslea da Miarritzen, autismoa hizpide hartuta. Baikor agertu da, ez baitzuen uste hainbeste ikasleek izena emanen zutenik autismoari buruzko ikastaldia segitzeko. Orotara 23 lagun ari dira ikastaroan.

Zer eskaintzen ari zara aste honetan Miarritzen?

Autismoari buruzko oinarri teorikoa aztertzeaz gain, ikasle hauen integrazioa erraztuko duten estrategiak eta metodologiak ezagutu eta praktikan jarriko ditugu astean zehar. Hau da, autismoa duten ikasleak gela arruntetan integratzeko nola egin daitekeen ikusi. Ikasle guztien eskubidea, baita autismoa dutenena ere, beren berdinekin ikastea dela pentsatzen baitugu. Gakoa irakasleen formazioa da. Gaur egun Gipuzkoan 5.000 bat ume dira heziketa berezia segitzen dutenak. 2.000 profesional dabilta horretan.

Ikastaldian, beraz, gela arrunt batean ikasle autista bat hobetzeko eta garatzeko nola egin aztertzen ari zarete...

Autistak eskola arruntetan egotea nola berma daitekeen ikusiko dugu. Hau da, eskola inklusiboa nola sortu. Eta horretarako integrazio politikak, kulturak eta praktikak garatu behar dira. Azken biak eskolari badagozkio, politikan gizarteak ere badauka bere papera jokatzekoa. Ez bada horrela arazoak sortzen ahal baitira. Irakasle edo guraso batek autismoa duen ikaslerik ez badu onartu nahi bere gelan, adibidez, besteen martxa oztopatzen duelakoan-edo. Erabateko eskola inklusibo batean hori inoiz ez litzateke gertatuko. Eskola integratzailearekin egiten den apustua horixe da: autista izan edo beste edozein sindrome izan, ikasleek eskubidea izatea gurasoek nahi duten eskolan ikasteko. Bestela, paradoxak gerta daitezke. Adibidez, gerta daiteke ikasle batek ez ikastea bere anai-arrebak dauden eskola batean.

Gaur egun autista gehienak klase arruntetan dira? Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko errealitatea ezagutzen duzu zuk batez ere. Zer aukera ditu haur autista batek?

Hainbat eredu daude. Gehienak ikastetxe arruntetan daude. Batzuek gela arruntetan eta beste batzuek guk deitzen ditugun gela egonkorretan. Hiru lau ikasle bi irakaslerekin egoten dira egun erdia-edo eta beste erdia gela arruntetan gainerako ikasleekin pasatzen dute. Espainian, hori ez da hainbeste ematen; eskola bereziak garatu dituzte. Autismodun ikasleak bakarrik egoten diren eskolak dira.

Integrazioa sistematizatu nahiko zenukete?

Helburua ez da sistematizatzea. Soilik da ezagutzea, noizbait erabili behar baduzu erabiltzeko. Baina autismoaren tratatzeko ez dago metodo bakar bat. Bakoitza behar den unean erabiltzeko, guztiak ezagutu behar dira.

Zenbait guraso Euskal Herritik at joan izan dira, han zentro bereziak daudelakoan, klase arruntetan egotea baino autista bakoitzak bere irakaslea izatea hobe delakoan. Zuk zer deritzozu horretaz?

Egia esan, horren eraginkortasuna ez dago era bat frogatuta. Ume batzuk lortzen dute besteek

ERO:



Leh

1

|

aurk

be

SAIL

• Ba
hitz
PSO

• «T
harr
sozi

• Eu
«Zu
eski

• Ibi
eta
Kon

• Ba
Gob
uste

• EA
erec
ditu

• Er:
joka
Bate

• Eg
begi
Aber

• Id:
eng:
nabi

• So
anti

• «L

ez dute hainbeste lortzen. Ez da ezer egiten ikastetxeetan ezin dena egin. Journal of Autismekin egin ikerketen azterketak erakusten dute diferentzia handirik ez dagoela metodoen artean. Horiek horrela merezi ote du ume batekin egunean sei orduz egotea? Astean berrogei orduz? Banan-banan? Lan karga handia esan nahi du horrek. Diru asko profesionalak pagatzeko. Ume bakoitzarentzat hiru edo lau profesional behar dira. Halere, ez dago metodo bat beste bat baino hobea. Guztion konbinaketa aplikatuz dira umeak aurrera joaten.

Horren guztiaren erdian, zer leku du euskarak?

Normalki ama hizkuntzan lantzen dugu. Nire eskualdean euskara da gehienbat. Ama hizkuntza errespetatzen bada ez dago arazorik.

Zure ustez, autismoa duten ikasleei begira zein dira gaur egun agertzen diren eskas handienak?

Nik uste dut gabezia handiena ez dagoela eskolan baizik eta gizartean. Teorian guztioi iruditzen zaigu oso ona dela murgiltzea. Ados gaude. Baina gure semearen gelan autismoa duen ikasle bat izateak kezkatzen gaitu. Ume guztiak daude eskolan jada. Baina gero, gizarte mailan, sindromeak dituztenak ez daude lan arruntak egiten. Gizarteak batzuetan eskolari eskatzen dio berak emateko gaitasuna ez duena.

Inprimatu



E-postaz bidali



Gomendatu



giza
egintza

• Sa
aber
siste

• Ip:
proje
«ozt

• Ik:
Ibilt:
Enki:

• Be
hizk
erat

• BL
ORC
BER
BIZI
«Ga
ikas
kasu

• Ko
kezk

• Tr:

• Un
minl
txer

• IZI
IZA:

• Bit
Dur:
gret

• Ag
hant
du k

• Bo
aleg
zab

• Tr:
ditu:
lagu

• Dij
plan
ema

© BERRIA-Edizio Digitala

berria@berria.info - www.berria.info

Euskal Editorea S.L. , Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain Tel 943 304 030 Fax 943 590